

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

3224

AGINDUA, 2019ko ekainaren 20koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita 2019ko deialdia nekazaritza-produkzio jasangarriko tekniken bidezko –Euskadiko Landa Garapeneko 2015-2020 Programan aurreikusitakoak– laborantza estentsiboen dibertsifikaziorako nekazaritza- eta ingurumen-laguntzetarako.

Ingurumenaren gaineko kezken ondorioetariko bat izan da nekazaritza- eta ingurumen-neurriak eta -konpromisoak hartzeko laguntzak ezartzea; betiere, bateragarri egitearren nekazaritako produkzio-metodoak bai ingurumena babesteko beharkizunekin eta bai baliabide naturalak kontserbatzearekin.

Nekazaritza- eta ingurumen-neurriak konfiguratzen dira nekazaritzako produkzio-metodo jakin batzuk eta nekazaritza konbentzionalean ezohikoak diren jarduketa jakin batzuk sustatzeko laguntza-araubide baten gisa. Metodo eta jarduketa horiek kostu gehigarriak dakartzate, bai eta diru-galerak ere. Beraz, ezartzen diren laguntzak saiatzeko dira konpentsatzen ingurumena eta baliabide naturalen kontserbazioa biziki errespetatzen dituzten nekazaritzako produkzio-metodoak eta -neurriak hartzeak dakartzan kosturik handienak eta lortu gabeko irabaziak.

Euskal Herriko Landa Garapenerako 2015-2020 Programak, jasotzen du laborantza estentsiboaren (Arabako Lurralde Historikoko ohiko laborantzak dira) nekazaritza-produkzio jasangarriko tekniken bidezko dibertsifikaziorako nekazaritza eta ingurumeneko dirulaguntza.

Neurri horren helburua da baliabide naturalen arrazoizko jasangarritasuna eta aprobetxamendua lortzea. Gainera, horrekin bateragarriak diren beste helburu batzuk ere baditu, inguru babestearen ingurukoak, nekazarien errentei eutsiz eta horiek hobetuz, laborantza horiek teknikoki ordenatzean. Horren harira, aipatu beharra dago neurri horrek indartuko dituela produkzio-jardueren dibertsifikazioa, laborantzen errotazioak eta laborantza horietarako Arabako aldeko baldintza fitosanitarioen aprobetxamendua.

Halaber, neurri hori da EAEko Landa Garapenerako 2015-2020 Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia ezartzen duen otsailaren 14ko 43/2017 Dekretuaren eranskinean eta aplikazio-eremuan barne hartutako neurrietako bat. 13.1 artikuluan xedatzen denez, «Dekretu honetan aurreikusitako neurri, azpineurri edo eragiketen laguntza bakoitzaren deialdia eta kudeaketa egokituko zaio bakoitzarentzat erabakitzen den organo kudeatzaileari, kofinantzaketan edo finantzaketa gehigarrian duen partaidetzaren arabera, dekretu honen 4. artikuluan eta eranskinean xedatutakoarekin bat etorritik».

Konstituzioaren 148.1.7 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.9 artikuluan ezarritakoarekin bat, nekazaritzako eta abeltzaintzako eskumen guztiak Autonomia Erkidegoari dagozkio, ekonomiaren antolakuntza orokorraren arabera, eta hori kontuan izanda eman da agindu hau.

Foru-aldundiei aholkua eskatu zaie agindu hau egiterako garaian. Horiek horrela, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da 2019ko deialdiko laguntzak iragartzea nekazaritza-produkzio jasangarriko tekniken –EAEko Landa Garapeneko 2015-2020 Programan aurreikusitakoak– bidezko laborantza estentsiboen dibertsifikaziorako nekazaritza- eta ingurumen-laguntzetarako.

2.– Nekazaritza eta ingurumeneko laguntza-mota hauek arautzen dituen araudiaren arabera eman, kudeatu eta ordainduko dira agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzak, eta, bereziki, honako hauei jarraituko zaie: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Erregelamendua, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidezko landa-garapenerako dirulaguntzaren ingurukoa; 2014ko uztailaren 17ko Batzordearen 808/2014 (EB) Erregelamendu Betearazlea, aipatutako erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituena; 2014ko martxoaren 11ko Batzordearen 807/2014 (EB) Erregelamendu Ordezkatuari, 1305/2013 (EB) Erregelamendua osatzen duenari, eta otsailaren 14ko 43/2017 Dekretua, Euskadiko Landa Garapenerako 2015-2020 Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia ezartzen duena.

3.– Halaber, agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzaren emakida eta ordainketa egiteko, neurri horiek jaso beharko dira indarrean dagoen Euskadiko Landa Garapenerako Programan, eta horri dagozkion baldintzetara eta aurrekontu-euskarrira egokitu beharko dira.

2. artikulua.– Pertsona onuradunek bete beharreko baldintzak.

1.– Dirulaguntza horiek jaso ahal izango dituzte nekazaritza-ustiategien titular diren pertsona fisiko edo juridikoen, edo legez osatutako nekazarien taldeek, baldin eta honako baldintza orokor hauek betetzen badituzte, betiere:

a) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuan izatea lursailak; dagozkien erregistro ofizialean inskribatuta egon behar dute lursailek.

b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta izatea, bai eta dirulaguntzen itzulketak ere.

c) Honako laborantza-talde hauetako bateko ekoizleak izatea:

– 1. taldea.– Udako laborantza ureztatuko ale-lekaleak, gizakiek kontsumitzekoak.

– 2. taldea.– Udako laborantza ureztatuko baratze estentsiboak.

– 3. taldea.– Hazitarako patata eta gizakiek kontsumitzeko patata.

– 4. taldea.– Azukre-erremolatxa.

d) Ustiategian, laborantza estentsiborako 2 ha.– ko azalera gutxienez izatea, aurreko paragrafoan aurreikusitako laborantza multzoari dagokionez. ha. 1 baino gutxiagoko laborantza multzo batek ezin du dirulaguntza eskatu.

e) Laborantza bat baino gehiagoko lursailek ereintza erregularrak eta homogeenak izatea.

f) Agindu honetan aurreikusitako laborantza estentsiboen ereindako lursailak aitortzea «Eskabide bakarra» atalean; atal hori aurreikusia dago otsailaren 16ko 20/2016 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan hauek garatu eta aplikatzekoan: Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) zuzeneko laguntzen erregimenak, Nekazaritza Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistema (SIGPAC) eta laguntzen onuradunek bete beharreko baldintzak.

g) Eskatzailea ez egotea zigor– eta administrazio-arloko dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean ere, sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne hartuta, bat etorritik Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoarekin.

2.– Halaber, ezingo dira laguntza hauen onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluen 2. eta 3. ataletan jasotako egoeraren batean dauden

pertsonak edo erakundeak; egoera horiek aipatutako lege horren 13. artikuluen 4., 5. eta 6. atal-atan xedatutakoaren arabera egiaztatuko dira.

3. artikulua.– Onuradunen nekazaritza– eta ingurumen-konpromisoak.

1.– Laguntza hauen onuradun izan ahal izateko, nekazaritza-ustiategien titularrak, aurreko artikuluan aurreikusitako baldintza orokorrak betetzeaz gain, konprometitu beharko dira nekazaritza– eta ingurumen-konpromisoak eta -teknikak gutxienez 5 urtez aplikatzera, agindu honen I. eranskinean jasotakoekin bat.

2.– Laguntzaren hasierako eskabidean, laguntza hauetara atxikitzen den azpi-neurriaren konpromisoak sinatuko ditu eskatzaileak. 5 urteko iraupena izango dute konpromiso horiek, eta nekazaritza eta ingurumeneko kontratutzat hartuko da ondore guztietarako. Hitzartutako denboraldia bukatuta, baldin eta araudiak eta aurrekontuak onartzen badute, laguntzaren urtebeteko luzapena eskatu ahal izango da.

3.– Hurrengo urteetan, nekazaritza– eta ingurumen-kontratu indarrean dagoen bitartean, hitzartutako azpi-neurriaren prima ordaintzeko eskabidea egin beharko du urtero.

4. artikulua.– Konpromisoen bihurketa edo adaptazioa.

Nekazaritza– eta ingurumen-konpromisoen bihurketa edo adaptazioa baimendu ahal izango da indarrean dauden aldiak, baldintza hauek betetzen badituzte, betiere:

- Ingurumenarentzat onura handi bat den bihurketa.
- Indarrean dagoen konpromisoa nabarmen finkatzen bada.
- Jatorrizko konpromisoaren helburuen lorpena aintzat hartuta behar bezala justifikatuta dagoenean adaptazioa.

5. artikulua.– Konpromisoetatik salbuesteko ezinbesteko arrazoiak.

1.– Kasu hauetan aitortuko da laguntzak jasotzeko hartutako konpromisoak ez betetzeko ezinbesteko arrazoiak edo salbuespenezko inguruabarrak daudela:

- a) Onuradunaren heriotza.
- b) Onuradunaren lanbide-ezintasun luzea.
- c) Ustiapen-lurrak gogor kaltetu dituen hondamendi natural larria.
- d) Ustiategiko eraikinak istripuz suntsitzea.
- e) Laborantzen parte bati edo osoari eragiten dion landare-gaixotasuna.
- f) Ustiategi osoa edo haren zati garrantzitsu bat desjabetzea, baldin eta desjabetze hori aurreikusita ez bazegoen konpromisoa sinatu zen egunean.

2.– Inguruabar horiek idatziz jakinarazi beharko zaizkio Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza edo Abeltzaintza Zuzendaritzari edo Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari, dagozkion probekin batera; horiek jakinarazteko, onuradunak edo haren eskubidedunak hamar egun balioduneko epea izango du hori egiteko baldintzetan dagoenetik aurrera.

3.– Inguruabar horiek gertatzean, ez da administrazio-penalizaziorik ezarriko, eta urte anitzeko konpromisoen edo ordaintzen kasuan, ez da eskatuko aurreko urteetan jasotako laguntza itzultzerik.

6. artikulua.– Ustiaketak eskualdatzea.

1.– Baldin eta, nekazaritza– eta ingurumen-kontratua indarrean den artean, ustiategia titular-tasunez aldatzen bada, osorik edo partez, onuradunak berehala jakinarazi beharko dio Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari.

2.– Baldin eta, konpromiso-aldian, onuradunak beste pertsona bati osorik edo partez eskualdatzen badio bere ustiategia, azken horrek konpromisoarekin jarraitu ahal izango du berau betetzeko gelditzen den denboran edo konpromiso hori iraungi egin daiteke, konpromisoa eraginkorra izan zen aldian inolako itzulketarik egin gabe.

7. artikulua.– Laguntzen zenbatekoa.

1.– Agindu honen I. eranskinaren 2. eta 3. artikuluetan ezarritako eskakizunak eta konpromisoak betetzen dituztenek, 2.1.c) artikuluan aurreikusitako laborantzei dagokienez, eskubidea izango dute eragiketa honen ondoriozko zenbatekoari dagokion laguntza jasotzeko: nekazaritza– eta ingurumen-metodoekin landutako aitortutako azalera bider banakako zenbatekoa.

2.– Hauek dira dirulaguntzaren unitate-zenbatekoak:

a) Nahitaezko konpromisoak:

- 1. taldea: 240 euro hektarea bakoitzeko.
- 2. taldea: 430 euro hektarea bakoitzeko.
- 3. taldea: 450 euro hektarea bakoitzeko.
- 4. taldea: 450 euro hektarea bakoitzeko.

b) Konpromiso gehigarriak:

- 1. gehigarria: 100 euro hektarea bakoitzeko.
- 2. gehigarria: 150 euro hektarea bakoitzeko.
- 3. gehigarria: 50 euro hektarea bakoitzeko.

Edonola ere, hektarea bakoitzeko gehieneko laguntza 600 euro izango da.

3.– Era berean, neurri horiek aurreikusten diren laguntzetara sartzeko, gutxienez 300 euroko laguntzak lortu behar dira, bakoitzaren xedapenei jarraiki.

8. artikulua.– Finantzaketa.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretako aurrekontu-kredituak izango dira agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzei zuzendutako baliabide ekonomikoen jatorria, eta RDPren xedeetarako finantzaketa osagarri bezala izango dira.

2.– 1.250.000 euro da agindu honi jarraikiz 2019ko ekitaldian zehar eman beharreko dirulaguntzen gehieneko bolumena.

3.– Ebazpen honetan aurreikusitako zenbatekoa aldatu egin daiteke, eskatutako laguntzen zenbatekoa kontuan hartuta, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako Departamentuko aurrekontu erabilgarritasunaren arabera, erabakitzeke ebazpena egin baino lehen. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politika Sailburuordearen ebazpenaz jakinaraziko da.

9. artikulua.– Funtsak agortzea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, eskabide horiei legozkiokeen zenbatekoa kalkulatu da aurreko artikuluan ezarritako kopuruen gehieneko zenbatekoa aintzat hartuta.

2.– Baldin eta aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera hasieran kalkulatu zenbatekoei erantzuteko adinakoa bada deialdi honetako diru-zuzkidura, laguntzak zenbateko horren arabera emango dira.

3.– Kontrako kasuan, honako baremo honen arabera puntuaziorik handienak lortu dituzten eskabideei emango zaizkie dirulaguntzak:

a) Natura 2000 Sareko eremuetan azalerak dituzten udalerrietan dauden ustiategiak, 15 puntu.

b) Belardia ez den laborantza bakar batek SAUaren % 80 baino gehiago osatzen duen herrialde batean kokatutako ustiategia, 15 puntu.

c) Mugaketa naturalak edo bestelako mugaketa espezifikoak dituzten udalerrietan kokatutako ustiategia, 15 puntu.

d) Gainontzeko ustiategiak, 5 puntu.

Puntu-kopuru bera izatekotan, eskuragarri dagoen gainerako zenbatekoa puntuazio bera duten beste eskabideen artean hainbanatuko da.

10. artikulua.– Dirulaguntzak, eskabideak eta dokumentazioa kudeatzea.

1.– Nekazaritza edo Abeltzaintza Zuzendaritzari eta Arabako Foru Aldundiari dagokie agindu honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak (Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila) Arabako Foru Aldundiari (Nekazaritza Saila) kudeaketa gomendiotan emateko 2016ko azaroaren 25eko Hitzarmenaren arabera eta han ezarritako baldintzetan, hain zuzen, EAEko Landa Garapenerako 2015-2020 Programan aurreikusitako nekazaritza-produkzio jasangarriko tekniken bidezko laborantza estentsiboan dibertsifikaziorako nekazaritza- eta ingurumen-laguntza kudeatzeko.

2.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzetara atxikitzeko eskabideak barne hartuko dira abenduaren 19ko 1075/2014 Errege Dekretuaren III. tituluaren II. kapituluaren ezarritako «eskabide bakarra» atalean eta otsailaren 16ko 20/2016 Dekretuaren 34. artikuluan (20/2016 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan honako hauek garatu eta aplikatzeko: Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) zuzeneko laguntzen erregimenak, Nekazaritza Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistema (SIGPAC) eta laguntzen onuradunek bete beharreko baldintzak). Eskabide bakarraren dagozkien laukitxoak markatu eta gero, agindu honen II. eranskinean aurreikusitako berriazko eskabide-eredua beteko da.

Edonola ere, aintzat hartuko dira helburu horrekin 2019ko otsailaren 1etik aurrera aurkeztu diren eskabideak, eta baliotasuna emango zaie, aurreko paragrafoan aipatutako «eskabide bakarra» aurkezteko epea amaitu arte.

3.– Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da eskabidearekin batera:

a) Erantzukizunpeko adierazpena, hartutako konpromisoak betetzeari eta haiek egiaztatzeko kontrolei baiezkota emateari buruzkoa.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, hau guztia adierazteko: eskabidean jasotako informazioa egiazkoa dela; bestelako administrazio edo entitate publiko zein pribatuetatik helburu bererako

dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak jaso izana; dirulaguntzak itzultzeko ordainketak ordainduta izatea; ez egotea itzultzeko prozedura baten edo zigortzeko prozedura baten eraginpean, edo akreditatzea prozedura hori amaiturik dela; akreditatzea pertsona edo erakunde eskatzaileak ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzea galarazten dion administrazio- edo zigor-arloko zigorrik edo hartarako desgaitzen duen legezko debekurik, eta aurkeztutako agiri guztiak egiazkoak direla.

c) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta daudela akreditatzeari dagokionez, dirulaguntzaren eskabidea aurkeztuz gero, eskatzaileak baimena emango du organo kudeatzaileak egoera horien akreditazioa zuzenenean jaso dezan, ziurtagiri telematikobidez. Hala eta guztiz ere, eskatzaileak berariaz uko egin diezaioke baimen horri, eta, halakorik egingez gero, dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du.

11. artikulua.– Izapidetzea.

1.– Arabako Foru Aldundiak akatsen bat edo zehaztasunik eza atzematen badu eskabideetan, eskatzaileari jakinaraziko dio, eta hark 10 eguneko epea izango du hori konpontzeko. Horretarako epea igarota, adierazitako akatsa zuzendu ez badu, aurretik egindako eskabidea ukatzeko ebazpen bat emango da.

2.– Dirulaguntza hori eskatzen dutenek fakturak, garraio-agiriak edo hartutako konpromisoekin lotutako bestelako dokumentazioa gorde eta Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza edo Abeltzaintza Zuzendaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren eskura jarri beharko dute.

3.– Beharrezko kontrolak eta egiaztatzeak egin eta gero eta aurreko artikuluan eskatutako dokumentazioa jaso eta gero, laguntza-kudeaketako erakunde laguntzaileak banakako txosten tekniko bat egingo du esku hartu den laguntza-espeditenteen gainean. Txosten hori ikusirik eta beharrezko irizitako egiaztatzeak egin eta gero, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariak ebazpen bat emango du hilabeteko epean, txostena jasotzen denetik aurrera.

4.– Artikulu honetan ezarritako epean berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ezean, eskabideak ukatutzat joko dira, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren arabera.

5.– Laguntzaren egiaztatze eta kontrol guztiak egin eta gero ordainduko dira laguntzak, eta otsailaren 16ko 20/2016 Dekretuaren 29.4 artikulua arabera eta bertan aurreikusitako epeetan.

6.– Laguntzei buruzko ebazpena interesdunei banan-banan jakinarazi behar bazaie ere, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearen ebazpen baten bidez, nekazaritzaren arloan eskumena duen organoaren egoitza elektronikoan argitaratuko da agindu honen babespean esleitutako dirulaguntzak eskuratu dituztenen zerrenda, esleitutako zenbatekoak adieraziz, Europako Erkidegoko erregelamenduan horren inguruan xedatutakoarekin bat.

12. artikulua.– Onuradunen betebeharrak eta eskubideak.

1.– Agindu honetan araututako laguntzen onuradunek betebeharrak hauek dituzte: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan aurreikusitakoak; eta, edonola ere, honako hauek:

a) Dirulaguntza ematea zilegi egiten duen egoeran izatea edo jarduera egitea, eta dirulaguntza eman duen erakundearen aurrean justifikatzea dirulaguntza emateko betekizunak eta baldintzak betetzen direla eta jarduera burutu dela.

b) Baliteke Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo Europar Batasuneko organo eskudunek informaziorik eskatzea agindu honen kontura jasotako dirulaguntzak direla-eta, eta, beraz, informazio hori eman egin beharko zaie, eta horrez gain, egiaztatze-jarduerei –administratiboak zein bertatik bertarakoak– men egin.

c) Dirulaguntza ematen duen erakundeari jakinaraztea bestelako administrazio edo erakunde publiko zein pribatuetatik xede berarekin jasotako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak, bai eta dirulaguntza ematean kontuan hartutako gorabehera objektibo edo subjektiboetan izandako aldaketak ere.

d) Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretatik, dirulaguntza eman zaiola jakinarazten zaion egunetik hasi eta hamabost eguneko epean onuradunak dirulaguntzari esanbidez uko egiten ez badio, pentsatuko da dirulaguntza onartu duela.

e) Emakumeenganako eta gizonenganako tratua berdina izatea esparru guztietan, kanpoko zein barrukoetan.

2.– Pertsona fisikoek eta pertsona juridikoen ordezkariak, agindu hau aplikatuzetik sortuko diren administrazio publikoekiko idatzizko zein ahozko harremanetan, euskara eta gaztelania erabiltzeko duten eskubidea eta aukeratzen duten hizkuntzan arreta jasotzeko eskubidea bermatuko da.

13. artikulua.– Deklaratutako azaleraren eta egiaztatutako azaleraren arteko aldearen ondoriozko erredukzioak eta penalizazioak.

1.– Ez-betetzeak atzemango balira egindako kontroletan, indarreko legerian ezarritako erredukzio, penalizazio eta itzultze hauek aplikatuko dira:

a) Baldin eta egiaztatzen bada egiaztatutako azalera handiagoa dela eskabidean deklaraturakoa baino, deklaraturako azalera hartuko da aintzat laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko.

b) Baldin eta egiaztatzen bada deklaraturako azalera egiaztatutakoa baino handiagoa dela, gaindeklaraziotzat joko da. Kasu honetan, kontrolean egiazki egiaztatutako azaleraren gainean kalkulaturako da laguntza. Egiaztatzen den gaindeklarazioaren portzentajearen arabera egingo dira erredukzioak eta penalizazioak. Gaindeklarazioaren portzentajea formula hau erabilia kalkulaturako da:

$$\text{Gaindeklarazio portzentajea} = \frac{\text{Deklaraturako azalera} - \text{Egiaztatutako azalera}}{\text{Egiaztatutako azalera}} \times 100$$

c) Baldin eta 0,1 hektarea edo txikiagoa bada deklaraturako azalera osoaren eta neurri baterako ordainketa-eskabidean egiaztatutako azalera osoaren arteko aldea, egiaztatutako azalera deklaraturakoaren pareko joko da. Baldintza hori ez da aplikaturako baldin eta azalera osoaren % 20 baino handiagoa bada diferentzia.

d) Baldin eta deklaraturako azaleraren eta egiaztatutako azaleraren arteko aldea % 3 edo bi hektarea baino handiagoa bada egiaztatutako azaleraren % 20 edo txikiagoa bada, egiaztatutako azaleraren oinarriaren gainean kalkulaturako da laguntza, egiaztatutako aldearen bikoitza txikituta.

e) Baldin eta aldea egiaztatutako azaleraren % 20 baino handiagoa bada, ez da azaleraगतिको inongo laguntzarik emango.

f) Baldin eta aldea % 50 baino handiagoa bada, ez da azaleragatik inongo laguntzarik emango. Gainera, onuradunak penalizazio gehigarri bat jasoko du, deklaraturako azaleraren eta egiaztatutako azaleraren arteko aldeari dagokion laguntzaren zenbatekoaren parekoa. Aurtengo urtean edo irregulartasuna atzematen den urtearen ondorengo hiru urteetan onuradunak aurkezten dituen eskabideengatik eskubidez legozkiokeen 1305/2013 (EB) Erregelamenduan edo 1307/2013 (EB) Erregelamenduan aurreikusitako laguntza-neurrien kargura emandako ordainketetatik kenduko dira penalizazio horien ondoriozko zenbatekoak. Zenbatekoa ezin bada osorik kendu ordainketa horietatik, gainerako saldoa ezereztuko da.

2.– Nekazaritza-lursail guztien azalerei dagokienez azalaren laguntza-neurrien deklarazio osatu gabea egiteagatik aurreikusitako penalizazioak kalkulatzeko, eskabide bakarrean deklaraturako azalera globalari kendu egingo zaio deklaraturako azalera global horri deklaratu ez diren nekazaritza-lursailen azalera globala gehituta ateratzen den azalera, eta alde hori hartuko da aintzat.

Baldin eta alde hori deklaraturako azalera osoaren % 3 baino handiagoa bada, neurri hauen arabera gutxituko da laguntza-neurrien zenbateko osoa:

a) Ehunekoa % 3 baino handiagoa baina % 25 edo txikiagoa bada, % 1eko murrizketa aplikatuko da.

b) Ehunekoa % 25 baino handiagoa baina % 50 edo txikiagoa bada, % 2ko murrizketa aplikatuko da.

c) Ehunekoa % 50 baino handiagoa bada, % 3ko murrizketa aplikatuko da.

3.– Ezarritako penalizazioak ez zaizkie aplikatuko onuradunak eskabidea okerra dela edo aurkeztu eta gero oker bilakatu dela agintaritza eskudunari idatziz jakitera ematen dizkion laguntza– edo ordainketa-eskabideen alderdiei, betiere onuradunari ez bazaio agintaritza eskudunak lekuan bertan kontrol bat egiteko duen asmoaren berri eman, eta agintaritza horrek ez badio jada laguntza– edo ordainketa-eskabidean ez-betetzeak daudela adierazi.

14. artikulua.– Baldintzak ez betetzeagatik erredukzioak eta penalizazioak.

Baldintzak betetzen ez badira, zehaztutako ehunekoa gutxituko dira laguntzen zenbatekoak, xedapen hauetan xedatuarekin bat: abenduaren 19ko 1075/2014 Errege Dekretua (1075/2014 Errege Dekretua, zuzeneko ordainketak, landa-garapeneko zenbait urte-sari edo mahastizaintzako eta ardogintzako sektoreari laguntzeko zenbait programetako laguntzak jasotzen dituzten onuradunek bete behar dituzten baldintza-arauak ezartzekoa) eta otsailaren 16ko 20/2016 Dekretua (20/2016 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan honako hauek garatu eta aplikatzekoan: Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) zuzeneko laguntzen erregimenak, Nekazaritza Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistema (SIGPAC) eta laguntzen onuradunek bete beharreko baldintzak). Murrizketa ezin bada ordainketa baino lehen zehaztu, geroko ordainketetan berreskuratu edo konpentsatu ahal izango da onuradunak ordaindu beharreko zenbatekoa. Azken kasu horretan, sortutako interesak ez dira aintzat hartuko.

15. artikulua.– Onarpen-irizpideak eta bestelako konpromiso edo betebeharrak ez betetzeagatik erredukzioak eta penalizazioak.

1.– Ez-betetze orok ekarriko ditu murrizketak edo ukatzeak laguntzaren lerroan. Ez-betetzearen proportzionaltasuna hartuko da aintzat azalera jakin bati soilik eragiten dion zehazteko, eta, kasu horretan, ustiapenaren parte horri aplikatuko zaio murrizketa. Hala ez bada, ustiapen osoari eragingo dio.

2.– Eskatutako laguntza osorik ukatuko da, baldin eta onarpen-irizpideak ez badira ustiapen osoan betetzen.

3.– Jarraian zehazten den bezala gutxituko edo ukatuko da eskatutako laguntza, baldin eta betebeharrak edo I. eranskinean tipifikatutako konpromisoak betetzen ez badira. Laguntza ehuneko zenbat gutxituko den zehazteko, ez-betetzearen larritasuna, norainokoa, iraupena eta errepikapena hartuko dira aintzat:

- Oinarrizko lerroa ez betetzea: laguntza ukatzea.
- Konpromiso baztertzaila ez betetzea: laguntza ukatzea.
- Oinarrizko konpromisoa ez betetzea: % 50eko murrizketa laguntzan. Oinarrizko konpromiso bat berriz hausten bada konpromiso-aldian, laguntza ukatuko da.
- Konpromiso nagusia ez betetzea: % 20ko murrizketa laguntzan. Ez-betetzeak behin eta berriz gertatzen badira, % 40ko murrizketa aplikatuko da konpromiso bera bigarren urtez betetzen ez denetik aurrera.
- Bigarren mailako konpromisoa ez betetzea: % 5eko murrizketa laguntzan. Ez-betetzeak behin eta berriz gertatzen badira, % 10eko murrizketa aplikatuko da konpromiso bera bigarren urtez betetzen ez denetik aurrera.

4.– Hauek izango dira konpromiso-aldian hitzartutako azalerari ez eusteagatik aplikatzeko murrizketak:

Murrizketa		
Hitzartutako azaleraren gutxitze-ehunekoa	Ez-betetzearen 1. urtea	Ez-betetzearen 2. urtetik aurrera
Ehuneko 20 < gutxitzea ≤ Ehuneko 40	Ehuneko 20	Ehuneko 40
Ehuneko 40 < gutxitzea ≤ Ehuneko 60	Ehuneko 50	Ehuneko 100
Ehuneko 60 < gutxitzea ≤ Ehuneko 100	Ehuneko 100	Ehuneko 100

* Gutxitze-ehunekoa = (hitzartutako azaleraren eta onarpen-baldintzak, oinarrizko linea eta konpromiso baztertzailak betetzen dituzten hitzartutako azalera) zati hitzartutako azalera, bider 100.

Edonola ere, hitzartutako gehieneko azalerari edo AzLUei ez bazaie eusten behin baino gehiagotan, ez dira itzuli beharko aurreko urteetan jasotako zenbatekoak.

5.– Konpromisoen ez-betetze bat baino gehiago gertatzen bada, horietako bakoitzari aplikatzen dakizkiokeen murrizketak gehituko dira.

6.– Onarpen-eskakizunak, oinarrizko linea ez betetzeak edo ordainketa-eskabidea ukatzea eragiten duten nekazaritza- eta ingurumen-konpromisoak ez betetzeak eta laguntza ordaintzeko eskabidea ez aurkezteak ekarriko dute Euskadiko Ogasun Nagusiari itzuli beharra gaur egun arte jasotako zenbatekoak eta horiei aplikatzekoak diren legezko interesak, baldin eta, konpromiso-aldiaren bi kanpainetan, egoera horietakoren bat gertatzen bada, betiere.

16. artikulua.– Berariazko ez-betetzeak.

Berariazko ez-betetzetat joko dira agerian uzten dutenak onuradunak, neurri horren helburuen aurkako abantaila bat lortzeko, artifizialki sortu dituela laguntza emateko eskatutako baldintzak. Kasu horietan, eskubidez legokiokoen laguntzatik kanpo geldituko da onuraduna, eta aurreko ekitaldietan jasotako zenbatekoak eta horien legezko interesak itzuli beharko ditu konpromiso-aldi honetan.

17. artikulua.– Murrizketa-, penalizazio- eta ukatze-agindua.

Ez-betetzeek murrizketen, penalizazioen eta ukatzeen pilaketa badakarte, horiek gradualki aplikatuko dira aurreko zenbatekotik abiatuta eta ordena honen arabera:

- Gaindeklarazioagatiko erredukzioak eta penalizazioak.
- Onarpen-irizpideak eta bestelako konpromiso edo betebeharrak ez betetzeagatiko ukatzeak.
- Eskabidea epez kanpo aurkezteagatiko murrizketak.
- Ustiapenaren azalera osoa ez aitortzeagatiko murrizketak.
- Konpromisoak ez betetzeagatiko murrizketak.
- Baldintzak ez betetzeagatiko erredukzioak.

18. artikulua.– Baldintzak aldatzea, ez-betetzeak eta itzulketak.

1.– Laguntzak emateko eta ordaintzeko kontuan hartu diren baldintzen aldaketa orok, betiere agindu honetan ezarritako gutxieneko betekizunak errespetatzen badira, eta, hala bada, beste dirulaguntza batzuk jasota gehieneko zenbatekoa gainditzen bada, eragin dezake dirulaguntzak emateko ebazpena aldatzea, betiere dirulaguntzako arauan horren onuradun izateko ezarri diren gutxieneko betekizunak errespetatzen badira. Esandakoaren ondorioetarako, organo kudeatzaile eskudunak aldaketa-ebazpena emango du, eta, haren bitartez, emandako dirulaguntzen zenbatekoak egokituko dira.

